

Balio handiko labana oparitu diote artisauek Berasategiri

25. Santa Ana eskulangintza ferian kalitate handiko lanak ikusi ziren

Artisauen 25. Santa Ana azoka egin zen atzo Okendo inguruan. Eguraldi ilun samarra izan zen egun guztian baina hurbildu zirenek hainbat eskulangile ikusteko eta beren lana ezagutzeko parada bikaina izan zuten.

Goizean, Jose Mari Berasarte eta Cesar Bozal labangileek Martin Berasategi sukaldariari laban oso berezi bat oparitu zioten. Janaria txikitze moduko laban handia merkatuan dagoen altzairurik onenarekin egin diote, helduleku tratamendu berezi bat daukaten bi bufalo hezurrekin egina eta narruzko zorroa gordetzeko.

Herriko bi artisauak Lasarten bakarrik erakusten dute beren lana. Bestela badituzte euren bezeroak kalitatezko labanak saltzeko. Hamar urte daramatzate honetan eta euren zaletasuna ogibide bihurtu dute. Larrua eskuz

josten dute eta marrazki zein grabatuak ere egiten dizkiete.

Hezur, egur, latoi, harri, narru,... hainbat material erabiltzen dituzte helduleku eta zorroak prestatzeko eta altzairu ezberdinak labanaren xafla erabiltzeko. Batzuetan zilarra ere erabili dute. Pieza horiek erakutsi bai baina ezin dituzte saltzen balio handia dutelako erabilitako material eta lanean emandako orduengatik.

Berasategiri egin diotenaren balioa ere ez da kalkulatzetik. Ideia artisauena euren izan da eta urtero sukaldari bati sukaldian erabiltzeko moduko laban zorrotz eta ikusgarria oparitzeko asmoa dute. Detaile guztiak zaindu dituzte: altzairu onena erabili dute, alde batean Berasategiren ikurra dauka, bestean artisauena, bitxigintzako pieza dirudi. Xorroan ere Berasategiren logotipoa marraztu diote narruan.



Arratsaldeko azken orduan jende gehiago hurbildu zen artisauen lanak ezagutzeko.



Martin Berasategi izan da artisauen laban berezia jaso duen lehen sukaldaria. Urchueguia alkateak erosi egin zuen bat.



Denetariko lanak erakutsi ziren atzo egun guztian zehar Okendo inguruan.

Antolatzaileen izenean Ramon Ormazabalek, Sendoki elkarteak Udal Kultur Batzordearekin batera 25 urtetan Euskal Herriko artisaurik onenak Lasarte-Oriara ekartzeko egindako lana nabarmendu eta eskertu zuen. Martin Berasategiri ere eskerrak eman zizkion eta Lasarteren enbaxadore dela aipatu zuen. Jone Altuna Kultura batzordeko burua eta Ana Urchueguia alkatea ere izan ziren ekitaldian.

Era guztietako eskulangi-leak euren lanak erakutsi zituzten Okendon eta jatekoak ere saldu ziren. Arratsaldeko azken orduetan bildu zen jendetza handiena. •



Jone Altuna,
Kultura eta
Hezkuntzako
Saileko buruari
elkarrizketa /3

KULTURA | 2

Osteguneko
Nazioarteko
Folklore
Jaialdian Mexiko,
Eslovakia eta
EuskalHerria



Zaldi lasterketei
buruz aritu gara
solasean Jabi
Arroyo eta David
Iglesias-ekin. /04-05

ANAIAK

JANTZI-DENDA

Kale Nagusia 25 • Tel.: 943 362386
LASARTE-ORIA

Egurdietan ere hartzen dugu jendea, ordua aurrez eskatu gero.

Proba ezazu gure laser zerbitzua

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Uistin kalea, z/g • Tel.: 943 370845 • LASARTE-ORIA

Mexiko eta Eslovakia dira Nazioarteko Folklore jaialdian gonbidatuak

■ Jaialdiaren XXVIII. edizioan Mexikoko *Kutzi*, *Yurecuaro*-ko Folk-Baleta eta Eslovakiako *Maj Folk* Elkartea izango ditugu Lasarte-Oriako *Erketz Dantza Taldearekin* batera. Ikuskizuna Manuel Lekuona kulturetxean izango da ostegunean, hilaren 24an, iluntzeko 22:30etatik aurrera eta sarrera 12 eurokoa izango da.

Portugaleteko Nazioarteko Folklore Jaialdiaren laguntzarekin, 1981az geroztik eta urte askotan Erketz D.T.k antolatu zuen Lasarte-Oriako Nazioarteko Folklore Jaialdia. Lehenengo ediziorako Bolivia, Estatu Batuak eta Poloniako taldeak etorri ziren. Geroztik 80 taldetik gora hartu dute parte jaialdian. Duela lau urte udalak hartu zuen jaialdia antolatzeko ardura eta Kiroldegitik Manuel Lekuona Kultur etxera aldatu zen.

Mexiko, Eslovakia eta Euskal Herria

Mexikoko taldeko gazteak, indiarren eta espainiarren odol nahastukoak, euren sustraiez harro dira. Ondo dakite milaka urtetako tradizioaren jarraitzaile direla, eta, euren herriaren historia maite izanik, dantzan aurkitu dute Mexikori dioten maitasuna agertzeko modua.

Beren izena, *Kutzi*, Mexikoko Michoacán-eko purepecha etniakoen jainkosa amaren aipamena da, betiko ilargiarena, gure eguzki aitaren ("tata" Huriataren) emaztearena. Purepechena da gaur egun talde etnikorik handiena, eta euren tradizio eta ohi-

turak zaintzen jarraitzen dute. *Kutzi* musika eta dantza talde jatorra da, era tradizionalekoa eta, halaber, antzeppen moldekoa. Oso estilo berezia sortu dute eta dantzari lotuta bizi dira artearekiko maitasun huts-hutsez.

Maj Folk Elkartek Piestany Institutuan egiten du lan. Taldeko kideak adin eta prestakuntza desberdinetakoak dira, guztiak amateurrak, herri ohituren zabalzaile sutsuak. Taldea 1996ko udazkenean sortu zen eta, harrezkero, emanaldi ugari izan du bai Eslovakian bertan bai beste herrialdeetan. Eslovakiako lurraldeetako kantudantzek osatzen dute elkarte honen programa. Jatorria herriaren duten tradizioei begirakoa da euren lana; tradizio horiei artezko moldea ematen saiatzen dira. Zerbait mezenasen eta Piestany Institutuan laguntza du talde honek.

Azkenik, etxeko taldea dugu, *Erketz Dantza Taldea*. 1966an sortutako taldea, gaur egun 25 dantzari helduek osatzen dute. Espainiar Estatuan, zein atzerrian hainbat emanaldi eskaini ditu euskal dantzak ezagutarazteko eta herriaren hainbat ekitaldi eta jailetan parte hartzen du. •



Goiko irudian Mexikoko *Kutzi* taldea eta behean Eslovakiako *Maj Folk* elkartea.



Zaldia eta musika uztartzen dituen ekitaldia Hipodromoan

Iragarri zuten moduan, ez dituzte bakarrik lasterketak antolatu Hipodromoan, datoren ostiralean, hilaren 25ean, gaueko 22:00etan *Pottok Musketan* ikuskizuna aurkeztuko dute. Gaueko ikuskizun honetan zaldia eta musika uztartzen dira, erritmo eta koloreekin ikuslegoa hunkitu arte.

Sokazko boskote profesional bat doa 25 zaldik osatzen dituzten koreografia ezberdinak markatzen; zaldi gainean

15 heldu eta 10 haur, Pottok eskolako ikasleak. Zaldiek musika marraztuko dute eta argien jokoekin, gauak ikuslegoa liluratuko duen magia sortuko du.

Ikuskizun hau lehen aldiz 2006an eskaini zen Zizurkilan. Arrakasta handia izan zuenez, antolatzaileek, Hipodromoaren Urrezko Koparen 40. urteurrena dela eta, oso egokia ikusi dute ikuskizuna berreskuratzea eta ospakizunen artean txertatzea. •

‘Ekitaldiak antolatzea ez da erraza’

■ Herriko sentsibilitate desberdinak asetzen saiatzen dira kultura eta hezkuntzako sailetik, diru askorik ez dagoen arren talde minoritarioak kontuan hartu behar direla uste dute

Jone Altuna kultura eta hezkuntzako saileko buruarekin hitz egiten egon gara batzordearen funtzionatzeko eraren inguruan. Gehien bat kanpotik datozen proposamenak jasotzea gustoko duela esan digu horrela herritarren gustoko gauzak egitea errazagoa delako.

HELENA FERRERAS

Nola funtzionatzen du kultur eta hezkuntza arloak?

Propioki, guk geuk gastatzen dugu dirua, zer egin erabakitzen dugu, kontzertu bat, erakusketa bat edo liburu bat eta zuzenki kudeatzen dugu Udaletik. Bestela norbait etortzen da udalari ekintza bat proposatzera, erakunde bat, talde bat edo pertsona bat izan daiteke edozein ekitaldi proposatu eta udalari berak egin dezala esatera dator. Hau da, egin nahi dute baina beraiek ezin dute.

Batzuk proposamenarekin etortzen dira beraiek ezin dutelako egin?

Bai, Udalak bere gain hartzen du eta finantziatzen du, proposamena kanpotik dator baina barne ekintza bat bezalakoa da. Ordaintzen da eta lana egiten da guk egiten ditugun ekintzetan bezala. Gustatzen zait proposamena kanpotik datorrenean. Herriarentzat eta kultura munduarentzat interesgarria dela iruditzen bazaigu onartu egiten dugu eta dirua baldin badago egiten da. Nazioarteko dantza jaialdia adibidez lehen dirulaguntza bidez egiten zen baina taldeek ezin dute karga hori eraman eta guk hartzen dugu, taldearen konformitate eta proposamenekin hartzen ditugu.

Herriko talde edo pertsona bat etorri daiteke zerbait proposatzera?

Idea edo proposamena zehaztuta ekarri dezake, interesgarria irudituko zaion zerbait, adibidez argazki zaharren erakusketa eta interesgarria bada egiten dugu. Zuzenean gauzak gure ideiekin egiten ditugu edo bestela proposatzen dizkigutenak. Talde batzuekin urtero sinatzen dira hitzarmenak, proiektua aurkezten dute dauzkaten asmoekin, taldeak zer egingo duen esaten du eta udalak zer ordainduko duen, konprometzu batzuk hartzen dira. Hitzarmena sinatzen den era-

kundeekin harremana estua da, sakonagoa da, gertuagoa. Onak dira hitzarmenak elkarlana egiteko.

Orduan udalaren ekintzak eta herritarrek proposatutakoak daude?

Bai. Bertso tranpa, Ttakunek proposatu zuen, eta musika, bertsoarritza eta antzerkigintzarako interesgarria zenez dirulaguntza bat eman zitzaion hori aurrera eramateko. 2006. urtean dirulaguntzen legea atera zen, araudia bat dago. Udaletxean ez dago beste departamenturik horrelakorik daukanik eta hor daude dirulaguntza puntual bat ematerako orduan kontuan hartzen diren irizpideak. Orain Eusko Jaurlaritzak beste lege bat atera du eta asmoa daukagu horrekin pareko bat egiteko. Beste sailekin ere lege bakarra egitea interesgarria iruditzen zait ekintzak eta dirua unifikatzeko. Gauza batzuk daude arlo batean baina gehiagotan sartu daitezkeenak, elkarren ondotik gertu daude alegia. Gauza bat bide batetik egiten bada gero ezinda beste bideetik egin.

Dirulaguntzak ematean puntuekin egiten da, nola?

Legean dauden irizpideen arabera ematen dira puntuak, teknikari batek egiten du lan hori. Adibidez, irabazi asmorik gabekoa bada onartu egiten da, edo interesgarria bada, edo jende kopuru handia bilduko badu. Eskara konkretuaren arabera ematen dira puntuak, egiten den programaren arabera.

Kultura bultzatzeko antolatzen al dituzue ekitaldiak zuten ekimenaz?

Ez da hain erraza, bartzutan asmo onarekin egiten ditugu gauzak baina agian ez da ondo ateratzen, agian ez da aretoa betetzen horregatik ondo pentsatu behar da zer egin. Gogoratzen naiz Gabin-Diego etorri zenean ez genuela bete. Hori guk antolatu genuen artisten koordinadoreekin. Baina neri



Jone Altuna kulturetxean duen bulegoan.

proposamenak jasotzea gustatzen zait.

Kexak daude dirua kudeatu besterik ez duzuela egiten.

Kaleko jendeak ideia zehatzagoak dauzka, interes handia daukate gauzak egiteko. Guk egiten dugunean mundu horretan dabilenari galdetu behar diogu ea zer iruditzen zaien programa, ziurtatu egiten ditugu gauzak ondo atera daitezen eta hala ere ez dugu beti arrakasta lortzen.

Aretoa betzen ez bada ere joan direnak gustora geratu badira arrakastatsua da ekitaldia, ez da?

Bai joaten direnak gustora gelditu badira hori ere arrakasta da. Departamentuak arlo eta disziplina guztiak bete behar ditu, talde minoritarioak ere hartu behar dira kontuan. Dena ezin da egin baina interesgarria da gauza desberdinak egitea.

Jendeak proposatzen duena aurrera ateratzen saiatzen zarete?

Bai hori da, batzuk finantziatzen ditugu osorik eta besteak diru laguntzein. Adibidez dantzari txiki eguna mantentzeko, udalak ez badu mantentzen ezin da egin. Beraiek parte hartzen dute, arduratzen dira, antolatzen laguntzen

dute, kanpoko taldeekin egiten eta beraiek ere parte hartzen dute jaiegun horretan. Denok batera egiten dugu lan, ez udalak bakarrik, denok elkartzen garenean gauzak ondo ateratzen dira.

Harremana egiten da hitzarmenak sinazterakoan?

Bai, neri ez zait gustatzen txekarekin nahi dudana egitea. Jendeak jendea ekartzen du. Jendearekin egiten baduzu gauza bat gero gurasoak, lagunak... etorriko dira, nere iritziz jendearekin egin behar dira gauzak. Jendearentzako baina jendearekin.

Batez ere proposamenak jasotzen dituzue?

Bai eta gero laguntzak eman. Zu alde batean zaude eta taldea betsean baina borondate ona badago akordio batera iristen gara. Garrantzitsua da markatzea zein ikuspuntuarekin egiten diren ekintzak, esan nahi dut, zuk zure gauzen ideia daukazu eta nik ideiak kontrastatzen egin nahi dut lana, jendeak zernahi duen ikustea. Herrian Sentsibilitate desberdinak daude, baserriak, kaleko jendea, auzo batekoak edo bestekoak, baina nik hemendik denontzat egin behar dut lan, denontzako. Bartzutan leku batera begira egiten dituzu

gauzak eta besteetan beste batera, leku guztietara begira azken finean.

Batzuk esango dute beraien aldera ez dela asko begiratzen.

Etorri daitezke gauzak proposatzera. Adibidez baserrien inguruan egin genuen ikaragarri polita zen bideo bat, baserriarrak etorri ziren aurkezpena eta unigarrria izan zen. Hori baserriarrei eskerrak emateko egin genuen, beraien isiltasuna, umiltasuna eta eraman duten bizitza isilagatik.

Puntuazioen informea ezin da eztabaidatu?

Ez, hori informe teknikoak delako. Nik teknikoki ondo baldin badago ez dut ezer esango, teknikaria ez da politikoa, nik horrelako lanik ez dut egingo politikaria naizelako. Hala ere nik eskubidea daukat, politikoa bezela, ezetz esateko baina hori nere kontzientzian geratuko da, horregatik teknikoak esaten duenarekin aurrera egiten dut. Bartzordera joaten naizenez beste politikoen aurrean aurkezten dugu, eztabaidatu egiten da eta azkenean bozkatu. Batzuk esango dute nik nahi dudana ematen dizkiodala laguntzak, baina ni politikaria naiz eta ez daukat lagunik. Herriarentzako interesa baldin badauka baiezkoarekin joango da. •

Okendo frontoiko azken filma ikusi ahal izan zen ostegunean

■ Hogei urte ondoren azkeneko filma eskaini zuen Okendo Z.T.k frontoian, *Viaje a Darjeeling*

TXINTXARRI

Gauetako sesio hauetan parte hartu duenak gogoan izango du pelikularen bat, ondo pasa zuelako, pelikularen musika gogoa duelako, gau horretan oso giro ona zegoelako, euria egin zuelako... Atzo euriaren arriskua bazegoen ba, egun goibela, eguerdin zaparrada, arratsean euri tantak ... baina eutsi zion ateri.

"Pena bat litzateke, azken filma ez ikustea eguraldiagatik"... "lasai, iluntzerako hobetuko duela esan dute"... ziren zinezaleen esanak eta nahiak. Azkenean, zortea aldeko, frontoia bota aurretiko azken filma eskaini zuten Okendo Zinema Taldekoek. Gainera ez zuten nolanhako harrera egin ikusleei, frontoira sartzeko kandelak jarri zituzten lurrian, eta filmaren erdian eginiko eten txiki batean pipak banatu zituzten, detaile politak.

Hemendik aurrera osteguneko filmekin konformatu beharko dugu. •



Arratsalde osoan nahiko eguraldi kaxkarra izan bazan ere, azkenean eutsi zion ateri eta jende asko bildu zen filma ikustera.


Larunbat gauean *Break Dance* izan zen Jalgin

Jalgiren uztaileko programazioak aurrera doa eta larunbat gauean Break Dance saio bat ikusteko aukera izan genuen.

Jalgira hori ikusteko asmoz bildutako jendea hasieran harrিতa geratu zen, oholtza eta inguruak hutsa baitzuden. Zarauztikan etorri zen Break Dance erakustaldia eskaintzera talde bat, lekua behar zutela eta gau-giroak laguntzen zuenez, tabernaren

barruan egin beharrean egoziagoa iruditu zitzaizkien kanpoan egitea eta horrela egin zuten.

Lurrean ipini zuten beraiek erabiltzen duten lona bat (dantza gainean egiteko), musika ipini eta dantzan aritu ziren. Ordu bete inguruko saioa egin zuten. Gazte talde bat zuten begira lurrean beraien ondoan eserita, agian urte gutxi barru herrian izango dugu honelako talderik. •



Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak. Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

EVA LIZARRAGA margolariaren lanak egongo dira ikusgai hila-bete osoan Jalgin, egun osoan.



Osteguna, 24

Jaialdia

NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIAN aurten ere hainbat herrialdetako taldeak etorriko dira ikusleen gozamenerako. Manuel Lekuona kulturetxean, iluntzean.



Santa Anako ospakizunak

Goizetik hasiko dira ospakizunak, 11:00etan meza izango da Brijitatarren komentuan eta ondoren luntxa. 12:00etan Santa Ana karkaban agurra dantzatuko da; arratsaldean haurrentzako jolasak izango dira Okendon eta gaueko 22:30ean, urtero moduan, Santa Ana parodia antzeztuko da.

LARUNBATEAN, 26AN
EGUN OSOAN

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181



Manuel Lekuona kulturetxea

Dagokionari

Txikizioak egin dituztela Villa Mirentxun salatu nahi du Udalak



Lasarte-Oriako Udalak lerro hauen bidez salatu nahi ditu Somoto parkean eta Villa Mirentxuko lorategietan egin dituzten ekintza bandalikoak. Bere garaian otorduetarako erabiltzen zen harrizko mahai bat puskatu dute eta bankuak erre eta beren lekutik atera dituzte.

Zerbitzu Publikoetako saileko arduraduna den Martin Morenok azaldu duenez, "ondo pasatzeko ez dago zertan altxor publikoa apurtu behar, herritar guztien artean pagatzen duguna". Aldi berean, horrelako ekintzak berriro ere ez suertatzeko neurriak hartuko dituztela adierazi du. Zaintza gehituko dute eta hondaketak egin dituztenak harrapatuz gero, gogor zigortuko dituzte.

Bestalde, Zerbitzu Publikoetako arduradunak berriro ere nabarmendu nahi izan duenez, "herritarrek orduz eta egunez kanpo ateratzen dituzte etxeko tresnak eta altzariak zaborretara". Asteazkenetan atera behar dira, 20.00etatik aurrera, ostegun goizean jaso ditzaten. Osteguna jai eguna den kasuetan, astearte gauean atera beharko dira tresna eta altzariak, lehen aipatutako orduan.

Oharrak

Stocken azokan izena epea zabalik

Irailaren 21ean Michelinen ospatuko den Stockaren ferian izena emateko zabalik dago. Azokan Lasarte-Oriako edozein establezimenduk hartu dezake parte; interesa dutenek horretarako, izena uztailearen 30a baino lehen eman behar dute. Horretarako Gorka Goikotxearekin, Merkataritza Teknikariarekin, harremanetan jarri behar dira 943-456333 telefonoan edo gorka@aega.es helbidean.

Kalea itxita gaur

Gaur, uztaileak 21, Beko Kale asfaltatuko dute eta hori dela eta itxita egongo da Loidi kalearen eta kiroldegian artean. Horren ondorioz, kiroldegi ondoan dagoen behin-behineko parkina (etorkizunean frontoia egongo den lekua) ezin izango da erabili egun osoan, 7.00etatik hasita.

Olitera irteera

Lasartearra elkarteak, irteera antolatu du datorren uztailearen 31rako, San Inazio egunerako. Aurten Oliteko Ochoa bodegetara egingo dute irteera eta herrian bertan dagoen jatetxe batean bazkalduko dute. Parte hartu nahi duenak elkartetik pasa eta izen eman besterik ez du uztailearen 25a arte.

Udal kiroldegiko bazkideak

Udalaren kirol instalazioak uztailetik abendura erabiltzeko asmoa duenak, urte erdiko abonoa egiteko epea irekita dago. Informazio gehiago nahi izanez gero Udal Kirol Zerbitzuetako bulegoetara jo daiteke (943.376182).

Kiroldegiko udako ordutegia

Udako ordutegia martxan dago kirol instalazioetan, bai Kiroldegian, bai Kirol

Gunean. Kiroldegia astelehenetik ostiralera 7:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 21:00etara egongo da irekita eta larunbatetan, berriz, 9:00etatik 13:00etara. Igandetan itxi egingo dute. Bestetik, kiroldegitik erabiltzaileei jakinarazten zaie Lasarte-Oriako igerilekua uztailearen 25an eta 31ean, goizez, zabalik egongo dela, goizeko 9:00etatik 13:00etara.

Kirol Gunea

Astelehenetik ostiralera 10etatik 12:30era eta 17etatik 21etara, larunbatetan 9etatik 13etara, igandetan itxita. Udalaren Kirol Instalazioen erabiltzaileei, ondoko hau gogoratzen diegu: Abonuak Buruntzaldeako edozein Udalar Kirol Instalazio, edozein momentuan erabiltzeko bidea ematen duela (gune bakoitzeko arau eta egutegia errespetatuz

Kiroldegia bi astez itxita

Lasarte-Oriako Udalar Kirol-Instalazioak abuztuaren 3tik 17ra bitartean (bi egunak barne), itxita egongo dira, instalazioen mantenimendua eta garbiketa egiteko, instalazioak martxan dauden bitartean egin izan diren horiek ezin baitira egin. Bestetik, Michelingo kirol gunea uztailearen 31an itxita egongo da. Kiroldegiko ordezkariak jakinarazi dute, egun horietan Kirol Instalazioko Abonatuak beste Instalakuntza hauek erabiltzeko aukera izango dutela: Urnieta (943-008328) eta Hernani (943-552185).

Euskara ikasten aritu direnek beka jasotzeko aukera

Udaleko euskarako zerbitzuak jakinarazi du 2007-2008 ikasturtean euskara ikasten aritu diren lasarteitarrek beka jasotzeko aukera dutela. Horretarako, interesatuek subentzio-eskaerak Uda-

leko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dituzte, bulego-orduen barruan eta ondoko jarraibideen arabera.

Batetik, subentzio-eskaera dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko dira.

Bestetik, eskaerarako eta zinpeko deklaraziorako ereduak behar bezala beteta aurkeztuko ditu, eta eskaerari erantsi subentzioak jasotzeko baldintzak akreditatzeko eskatutako agiriak.

Argibide gehiago nahi izanez gero, euskarako zerbitzura jo daiteke edo 943 376184 telefono zenbakira deitu dezakezue.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe

‘Munduko kanal zailenetan entrenatu dugu Joku Olinpikoak prestatzeko’

Maialen Chourraut piraguista ekainean ur bizietako slalomean Espainiako Txapelduna izan da, jada zortzigarren urtea eta abuztuaren Pekineko Joku Olinpikoetan parte hartuko du. Pekin aldera abiatu aurretik egun batzuk igaro

ditu herrian. Komunikabide guztiak bere atzetik dituen arren, Txintxarrikoei tartetxo bat egin digu. Joku Olinpikoetan jaitsi behar duten kanala, Shunyiko kanala, munduko zailena dela kontatu digu: “desnibel handia du, ur pilo bat eta

ur mugimendu nahiko zatarrak. Fisikoki oso indartsu egon behar da eta teknikoki oso fin”. Maialen Pekineko kanala jaisten telebistaz ikusteko aukera izango duzue, abuztuaren 13an eta 14ean eguerdi aldera. Ikuskizuna ziurtatuta dago.

ITZIAR CARRASCO

Pekineko kanala ezagutzen al duzu?

Lehen aldiz urrian joan ginen Pekinera kanala ezagutzera eta munduko kanalik zailena zela eta urte osoan zehar lan oso espezifiko egin beharko genuela ikusi genuen, batez ere Olinpiadei begira. Kanala oso-oso zaila da. Horregatik aurten mundu osoan zehar egon naiz entrenatzen.

Kanalak zein zailtasun ditu?

Desnibel handia du, ur pilo bat eta ur mugimendu nahiko zatarrak. Fisikoki oso indartsu egon behar da eta teknikoki oso fin. Teknikoki ondo baldin bazaude, baina ez baduzu indarrik ura nahi duen tokira eramaten zaitu. Oso prestatua egon behar da.

Psikologikoki ere prestatua egon beharko duzue, ezta?

Bai, psikologikoki ondo egon behar zara, gainera kanala hain zaila izatean entrenamenduetan ere batzuetan animoa galtzen duzula. Hiru jaitsieretatik bi gaizki egitea ez da normala. Pekinen hori gertatzen da. Mentalki ezin zara inoiz behera etorri, ondo egin ez arren, aurrera joan behar dela eta nabegazio on bat egiteko estrategia hobereana lortu behar dela pentsatu behar da. Argi daukagu lehiaketa kanal horretan izango dela eta guztiok zailtasunak izango ditugula.

Non ari zara prestatzen?

Gipuzkoan ez daukagu lekurik entrenatzeko eta Seu D'Urgel, Lleidan, entrenatzen dugu normalean. Baina, kanalarri begira, federazioak pentsatu zuen prestateta egoki bat izateko hobereana munduko kanal zailenetan, handienetan entrenatzea izango zela, olinpiadetan indartsu egoteko. Urtrairlean, hilabete osoa Australian igaro genuen, Sydneyko Joku Olinpikoetan erabili zuten kanalean entrenatzeko; otsailean hiru astez Atenaseko olinpiadetarako



erabili zuten kanalean entrenatu genuen, Pekinekoa eta gero dagoen indartsuena da hau; apirilean, Pekinen egon ginen; maiatzean Cracovian, Eslobakian eta ekainean bitan Pekinera joan gara. Gelditu gabe aritu gara denboraldi osoa. Ur handienetan seguru sentitzeko balio digu honek.

Piragua berezia erabiliko al duzu Pekinen?

Ni txikia naiz eta piragua txikiak handiak geratzen zaizkit. Beraz, txikiak txikitu egin behar dizkirate. Nire piraguak ia-ia artisau lanak dira. Urrian Holandara joan ginen tamaina egokiena eta Pekineko kanalarri hobeto egokituko zaion piragua egitera: aurrean bolumena eduki behar du, Pekineko ur lasterrak ondo pasatzeko, baina ez da oso handia izan behar bestela

ezin dut mugitu eta atzeko aldea, berriz, txikia izan behar du. Gainera, piraguekin nahiko mizkina naiz. Piragua nirea sentitu behar dut eta nirea sentitzen ez dudan arte ez dago gustura.

Azkenean, zein piragua erabiliko duzu Pekinen?

Urrian egin zidatenaekin lehiatuko naiz. Australiara joan ginenean abioian hautsi egin zidaten eta nahiko matxuratuta dago baina ez zaio ura sartzen. Beste bi piragua egin dizkirate olinpiadetako, baina probatzen hasi nintzen eta ez nuela denbora nahikorik erabat piraguari egokitzeko sentitzen nuen. Orduan, erabaki nuen zaharra eramatea. Palarekin berdina gertatzen zait. Bi pala berri egin dizkirate, baina ez nago gustura. Eskua pala zaharrera guztiz

egokitzen zait eta piragua zaharra ere oso ondo ezagutzen dut.

Kanaletik behera zoazela, zer duzu buruan?

Zirkuitua buruz jakin behar duzu derrigorrez. Zirkuituak lehen aldiz lehiaketan egiten dugu. Lehiaketako aurreko egunean makilak jartzen dizkigute zirkuitua ikusteko eta kanpotik ikusi eta aztertzen dugu: mugimenduak zeintzuk izan daitezkeen, nondik jaitsi... Zirkuitua buruan askotan eginda daukagu, baina praktikan ez. Kanalean behera zoazela oso adi zoaz. Akatsen bat eginez gero, inprobisatu egin behar da.

Zenbat denbora behar duzue jaitsiera egiteko?

Normalean 300 metro inguruko jaitsierak izaten dira eta asko jota 120 segundotan egi-

ten dugu. Jaitsierak oso azkarak dira eta denbora gutxian asko dago jokoan. Gainera, kanpoko eragile asko daude: ur kopurua, haize egiten badu makilak mugitzen dira...

Aurkariak ondo ezagutzen al dituzu?

Beti berdinak gara. Urte bate-tik bestera aldaketaren bat egon daiteke, baina urtean zehar egiten ditugun lehiaketetan elkar ikusten dugu. Jende oso ona dago, azken olinpiadetako txapeldunak hor daude, munduko txapelduna, txapeldun ordea, 3. eta 4. bertan izango dira eta estatu bakoitzeko hoberenak. Besteak ezagutzeak ez du esan nahi beraien estrategiak ezagutu behar ditudanik. Probaren bat ondo egin dutenean aztertu dezaket zer egin duten gero nik aplikatzeko, behar izanez gero.

Espainiako Txapelduna izan zara berriz ere. Erraza egin al zaizu?

Inoiz ez da erraza, kanpotik horrela dirudien arren. Txapelduna izateko ondo egin behar da eta ez da erraza. Lehiaketa bat da, zirkuitua garbi egin behar da, akatsa txiki batek atzera botatzen zaitu. Egia da aurten lehiatze-ko segurtasuna dudala eta atzetik datozen neskek ez dutela nire maila, baina gero eta gertuago ditut eta akatsaren bat egiten badut aurretik jartzen zaizkit.

Joku Olinpikoak amaitu ondoren, zer egin behar duzu?

Zaragozako Expoan egin duten kanalean, irailleko lehen asteburuan, lehiaketa internazionala antolatu dute eta bertan parte hartuko dut. Ondoren pixka bat deskantsatu beharko dut. Baina, urrian berriz ere hasiko gara entrenamenduekin. Datorren urtean munduko txapelketa Seu D'Urgelen, Lleidan, entrenatzen dugun kanalean izango da eta ahal dugun hobereana egin behar dugu, kanala oso ondo ezagutzen dugu eta. •